

Ariketa hauek Ikasbileko 1966027 atazan aurkituko dituzu

**Audioaren erreferentzia:** JJ-44 Ezcutuan

**Mailak:** B2-C1

**Funtzioak:** hipotesiak egin, iritzia eta arrazoiak eman, portaera baten alde on eta txarrak adierazi.

**Adierazpide linguistikoak:** lexikoa (*senar ohi, bikote, lagun, igerileku, elkarrekin, ibili, senargai, hurbildu, ikusi, ezcutuan...*), Aditza: subj. nor-nork (dezan, gaitzan), hipotetikoa nor (gintezke), indik. nor-nori (natzaizu), baldintza (badabil, bagina...)

**Azken ekintza:** Zure ex-ari bikotekide berria aurkeztuko zenioke? Alde on eta txarrei buruz hitz egin

## EGITEKOAK

### 1-Ikasgelara etorri aurretik egitekoa.

Elkarrizketari hasiera ematen dion Whatsappeko mezuetan oinarrituta, gertatuko denari buruzko hipotesia aukeratu, edo berria eraiki, eta ikasgelan azaltzeko arrazoiak prestatuko dituzte.

### 2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.

Elkarrizketan ezcutuan ibiltzeari lotuta esan dituzten hainbat esaldiren bukaera egokiak emateko ariketa.

## 1.2 Igerilekuan

Ikaskidearekin partekatu ditzatela jardueran jaso dituzten hipotesiak eta arrazoiak.

Ondoren, elkarrizketa entzungo dute egin dutena egiaztatzeko.

### **Zuzenketa:**

Oskarrek **elkarrekin ikusiko ditu biak eta Jonek azalpenak eman beharko ditu**

Ikasleek jakingo dute Jonek ez duela bere senar ohiak Jon ezagutzea nahi. Entzundakoaren arabera, esan dezatela zergatia zein den.

### **Zuzenketa:**

Joneren hitzetan: **“Badakit arraroa dela Jon. Baina ez dut bere irribarre eta labankada ironikorik agoantatu nahi. Ez dut nahi nire bizitzaz ezer jakin dezan”**

## 2- Entzun bitartean

### 2.1 Aukeratu egokia

elkarrizketari buruzko galderi erantzun egokia aukeratu. Alderatu dezatela ikaskidearekin egindakoa. Berrito entzun eta egiaztatu erantzunak.

### **Zuzenketa:**

#### **Zergatik dago minduta Jon?**

- Bien arteko harremana ezcutuan eraman behar dutelako**
- Ez duelako Nikorengana hurbiltzen uzten
- Niko tartean dagoenez, beti galtzaile aterako delako

#### **Igerilekuan zein izango da elkar ikusteko unerik egokiena?**

- Oskar Nikoren bila joan aurretik
- Oskarrek Niko eramandakoan**

c. Oskar eta Niko Jonerekin elkartutakoan

**Zer gertatzen da Oskarren oraingo neskarekin?**

- a. Joneri ez zaio batere ondo iruditzen Oskar Vanessarekin egotea Niko tartean dagoenean
- b. Oskar Vanessarekin ateratzea guztiz normala iruditu arren Jonek nahigo du ezer ez esan Joni buruz.**
- c. Jonek ez du ezer jakin nahi Vanessari buruz, horregatik ez dio Jon aurkeztu nahi

**Zein izango da astebururako plana?**

- a. Zinemara joateko asmoa azaldu du Jonek baina ez dira joango Nikorekin egon behar duelako
- b. Jon kanpora joango da eta Jone, berriz, zinemara
- c. Jone saiatu da zinemara joateko plana egiten, baina Jon haserre dago eta ez du bere gonbidapena onartu**

**Zertarako deitu dio Oskarrek Joneri?**

- a. Vanessarekin asteburu pasa egiteko plana egin du eta Nikorekin ezin dela geditu esateko
- b. Nikoren poltsan hortzetako eskuila sartu ote duen jakiteko
- c. Nikoren hortzetako eskuilaren aitzakian, igerilekuan norekin zegoen jakiteko.**

### 3. ENTZUN ONDOREN

#### 3.1 Banandu ondorengo bikotea



Jarduera honetan, elkarrizketan entzundakoari buruzko gogoeta egin eta egoerari buruzko iritzia ematea eskatzen zaie ikasleei.

Horretarako, dokumentuan dituzten bi galderei erantzutea proposatzen zaie

- 1. Zein dira zure ustez bikotekide ohia harreman berriaren jakitun egitearen alde onak eta txarrak?
- 2. Zer egingo zenuke Joneren lekuan egongo bazina?

Bakoitzak bere iritzia eta arrazoiak idatzi ondoren, talde handian ekingo diote eztabaidari, bakoitzak pentsatzen duena partekatuz.

### BAKARKA EGITEKO ARIKETA

#### 3.1 Esaldiei amaiera eman

Entzungaian zehar hainbat esaldi erabili dituzte Joneren senar ohia elkarrekin ateratzen ari direla ez konturatzeko. Osa itzazu falta diren zati egokiak aukeratuz

**1. Zurekin ez naiz egongo...**

- a. Oskar inguruan badabil
- b. Oskar inguratuta badabil
- c. Oskarren inguruan dabil

**2. Ur azpian sartuko gara...**

- a. inork ikus ez gaitzan
- b. inork ikus ez dezagun
- c. inork ez gaituen ikusi

**3. Lasai, disimulatuko dut. Ezagutuko...**

- a. ez bagina bezala
- b. bagara bezala

c. ez bagenu bezala

**4. Orduan, Oskar inguruan badago...**

- a. ezin natzaizu hurbildu, ezta?
- b. ezin zaitzaketa hurbildu?
- c. ezin gara hurbildu, jakina

**5. Ez dut nahi...**

- a. nire bizitzaz ezer jakin dezan
- b. nire bizitzarekin zerikusia izan dadila
- c. nire bizitzaz zerbait jakin dezala

**6. Zuk ikusi Jone. Ni ez naiz...**

- a. ezkatuan ibiliko
- b. ezkatututa ibiltzen
- c. ezkaturako egongo

**7. Nahi baduzu, ordu erdi barru...**

- a. kafetegian gera gintezke
- b. kafetegian geratzen gara
- c. kafetegian geratuko ginateteke

**TRANSKRIPZIOA**

W-JONE: Gaur Niko eramango dut igerilekura eta gero bere aita etorriko da haren bila.

W-JON: Igerilekura ez joateko esan nahi didazu ezta?

W-JONE: Ez da hori. Baina zurekin ez naiz egongo Oskar inguruan badabil.

W- JON: Ba nik ere badut igerilekura joateko asmoa. Zuk ikusi.

JON: Aupa Jone

JONE: Kaixo Jon

JON: Non da Niko?

JONE: Monitorearekin utzi dut lehen. Haren bila noa oraintxe

JON: Nirekin hitz egin dezakezu edo ur azpian sartuko gara inork ikus ez gaitzan?

JONE: Jon pikatuta zaude?

JON: Ni pikatuta? Keba. Zergatik egon behar nuen pikatuta?

JONE: Nikoren bila alde egin beharra dut Jon

JON: Lasai, disimulatuko dut. Ezagutuko ez bagina bezala, lasai

JONE: Jon.

JON: Niri deitzen didazu señora?

JONE: Nahi baduzu ordu erdi barru kafetegian gera gintezke.

JON: Niko jada joan da bere aitarekin?

JONE: Bai.

JON: Orduan, Oscar inguruan badago ezin natzaizu hurbildu.

JONE: Sentitzen dut Jon, baina oraindik nahiago dut ezer ez badaki.

JON: Institutuan gaudela dirudi.

JONE: Ez jarri horrela Jon



JON: Zure erabakia da Jone, ni ez nago ados, baina bueno. Niko dago tartean eta kontu honetan ni beti galtzaile aterako naiz.

JONE: Ez ezazu hori esan.

JON: Eske ez dut ulertzen, bera Vanessarekin ateratzen da eta ez da ezer gertatzen. Zergatik ez zara zu nahi duzunarekin ibiliko?

JONE: Nola gogoratzen zaren Vanesaren izenez, e?

JON: Ez ezazu gaia desbideratu.

JONE: Badakit arraroa dela Jon. Baina ez dut bere irribarre eta labankada ironikorik agoantatu nahi. Ez dut nahi nire bizitzaz ezer jakin dezan.

JON: Zuk ikusi Jone, baina zure kontua da. Nik paso egiten dut txorrada (txorakeria) hauetaz. Ni ez naiz ezkutuan ibiliko.

JONE: Niko Oskarrekin geratuko da asteburu amaiera arte. Nahi baduzu zinera joan gintezke.

JON: Ez gaur ezin dut.

JONE: Bale.. eta bihar?

JON: Hitz egingo dugu. Alde egin beharra daukat orain. Nahi duzu norabaitera hurbiltzea?

JONE: Ez, oinez itzuliko naiz... aizu Jon

JON: Bale, ba banoa orduan, agur...

JONE: Jon!

JONE: Kaixo Oscar. Zer gertatzen da?

OSCAR: Lasai Jone, besterik gabe, Nikoren poltsan hortzak egiteko zepilloa sartu duzu?

JONE: Baietz esango nuke

OSCAR: Ez dut topatzen...

JONE: Bueno ba erosi ezaiozu...

OSCAR: Aizu eta nola izena du zure lagunak?

JONE: Zein lagunek?

OSCAR: Zurekin igerilekuan zegoena, tatuajeak dituen hori, goiko balkoitik ikusi zaituztet.

JONE: Ehh, ba, ah hori Jon. Jon du izena, batzuetan berarekin koinziditzen dut igerilekuan bai.

OSCAR: Hara, zer kasualitatea. Jon, zure lehen nobio haren izen berdina du.

JONE. Bai, kasualitatea.